




GREENGROUP

FUNTSEZKO JARDUERAK:

Alde batetik, gure ekoizpen kostuak ahalik eta gehien jaitsi behar ditugu, etekin handiagoa izateko. Hori lortzeko, salgai ditugun merchandisingeko produktuak ahalik eta merkeen lortu behar ditugu, eta prezioa pixka bat gehiago igota saldu. Argi dago produktuak ez direla merkeak izango, modu ekologiko batean ekoiztea ez baita merkea, baina garestiegi ez jartzen saiaturako gara; bestela, inork ez ditu erosiko.



Ikastoletan emango ditugun hitzaldiak eta tailerrak gure zerbitzuaren zati handi bat izango dira, eta guk kudeatuko ditugu, kontratatutako beste bi langileekin batera. Zaborraren arazoaren inguruko kontzientzia zabaltzea eta ingurumenaren babesaren aldeko hezkuntza bermatzea izango dute helburu. Ekintzak ahalik eta merkeen egiten saiaturako gara, adibidez, txarteletan eta dekorazio garestian dirutza gastatu gabe. Eskoletara joateko garraioa gure esku utziko dugu, langile gutxi baikara.



Bestetik, gure enpresa ezagutzera ematea oso garrantzitsua da. Propaganda eta iragarkiak (autobusen markesinetan, adibidez) onuragarriak izango dira. Gainera, ekoiztuko ditugun pegatinak hirian zehar itsatsiko ditugu. Eranskailuetan QR kode bat agertuko da, eta eskaneatutakoan, gure aplikazioa deskargatzeko aukera emango du. Pegatina horiek gazteek edateko ohitura daukaten lekuetan jarriko ditugu batez ere, puntu horietan zakar asko pilatzen baita beti (gaztetxe eta unibertsitateen inguruan, esaterako).

Gure zerbitzuak gazteei eta umei daude bideratuta batez ere; beraz, Interneten gure tokia izatea garrantzitsua da. Webgunea, YouTubeko kanala, Instagrameko kontua, aplikazioa... horiek guztiak gasteiztarrekin hurbiltasuna izateko erabiliko ditugu, eta guk kudeatuko ditugu.



Hona hemen GreenGroup izeneko aplikazioaren ikuspegi xume bat: puntu gorriak zakarrontziak dira, eta puntu urdinak, edukiontzia.